



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIBOKO UDALA 2004 ETA 2000-2004 HIRIGINTZA HITZARMENEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA .

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bilboko Udalaren 2004ko fiskalizazio lana eta 2000-2004ko Hirigintza Hitzarmenei buruzko txostena mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. HKEEren lanak Udala bera ez ezik, bere Erakunde Autonomoak eta Sozietate Publikoak besarkatzen ditu.

Udalaren legezketasunari buruzko atalean, Epaitegiaren iritzia aldekoa da udalaren ekonomia-finantza jarduerari ezargarria zaion arautegia betetzeari dagokionez; nolana dela ere, hainbat ez betetze aipatu ditu.

Aurrekontuari eta kontuak aurkezteari dagokionez, erakunde fiskalizatzaileak adierazi du Kontu Orokorrean ez direla Mercabilbao, SA eta Udal Etxebizitzak Akzioen araberako Komandita-Sozietatea Sozietate Publikoen Urteko Kontuak barne hartu, Toki Entitateen Aurrekontuzko Foru Araua urratuz. Halaber, indarreko araudiaren ez betetzetzat hartu da hartutako obligazio gerokoak adieraziko dituen konpromiso kredituen egoera ez mamitzea eta Udalbatzari onetsitako kreditu aldaketen jakinarazpena atzeratzea, eta zenbaitetan, ez jakinaraztea.

Langileriari dagokionez, udalak ez ditu bereizten aurrekontuaren plantilan kredituzkidurak kolektiboen arabera (lan kontratupeko langileak eta funtzionarioak), Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoa urratuz.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak ezargarria den legeriaren hainbat ez betetze jaso ditu: Honela, bada, adierazi da hiri garraio zerbitzua ematen duen enpresaren bitartekaritzarekin 16 autobusen erosketa finkatutako prozedurak jarraitu gabe gauzatu dela, publizitate eta lehia printzipioak urratuz. Indarreko arautegiaren arabera izapidetu ez diren kontratu aldaketei dagokionez, zerbitzuak emateko kontratu batean eta hiru obra kontratutan gertatu dela azpimarratu du.



Diru laguntzen alorrean, HKEEk azpimarratu du 9 milioi euroko diru laguntza izendunak eman direla, eskuratu asmo diren helburuak justifikatzeko beharrezko baldintzak finkatu gabe; honek Diru laguntzen Lege Orokorra urratzen du.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du kontuaren aurkezpen eta edukiari dagokionez; hala ere, salbuespenak egin ditu eraginpeko gastuen kontzeptuan finantza-desbideraketen azterketa ez egiteagatik; gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrendarik ez izateagatik eta Diruzaintza Gerakina 8 milioi euroan murrizten duten kontabilitateko hainbat zuzenketengatik, 36 milioi euroan geratzen delarik.

Udal erakunde autonomoei dagokienez, HKEEk adierazi du Lan Ekintza Bilbao, Toki Erakunde Autonomoak ez duela aurrekontu kudeaketa eta administrazio kontratazioari buruzko arautegia betetzen. Bestetik, beste erakundeetan iritzia aldekoa da, nahiz zenbait salbuespen egiten dituen: Bilbao Musika, Bilbao Kirolak eta Bilboko Udal Etxebizitzak.

Udal sozietate publikoei dagokienez, txostenak ezargarria den arautegia betetzeari dagokionez ere aldeko iritzia plazaratu du, iritzi orokor hau salbuesten duten hainbat alderdi azpimarratu dituela:

2000-2004 Hirigintza Hitzarmenei buruzko txostenak aldi horretan izapidetutako 33 hitzarmenetatik 14 aztertzen ditu.

HKEEk horien tramitazioa eta exekuzioa aztertzei eskuratu dituen ondorio nagusien azalpena egiten du; besteak beste, azpimarratzekoa da onetsi aurretik informazio publikorik ez ematea. Nahiz 2006ra arte ez zen nahitaezko izapidea indarreko hirigintzaren legerian, administrazio publikoen kontratazioari buruzko legerian jasotako administrazio zuzenaren printzipioa betetzeak, nolabaiteko argitalpen prozedura bideratzera behartzen zuen.